

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

46/2020 Foru Agindua, otsailaren 26koa, baimentzen duena María Carmen Fernández Mayok Urkabustaizko Udaleko idazkari lanpostuan bitarteko funtzionario moduan jarduteari uztea, berak eskatuta

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuaren otsailaren 4ko 27/2020 Foru Aginduaren bidez, 2020ko otsailaren 12ko ALHAOn argitaratua, María Carmen Fernández Mayo izendatu zen Urkabustaizko Udaleko idazkari lanpostuan bitarteko funtzionario moduan jarduteko, lanpostuaren titularra den María Luisa Velasco Irustaren laneko aldi baterako ezintasuna dela eta.

Udal horrek idazkia bidali dio Arabako Foru Aldundiari, jakinarazteko funtzionario hark lanpostuan jarduteari uko egin diola, 2020ko otsailaren 22tik aurrerako ondorioekin, eta udalak onartu duela uko egitea.

Aurretik azaldutako guztia ikusirik, eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Uztea María Carmen Fernández Mayok Urkabustaizko Udaleko idazkari lanpostuan bitarteko funtzionario moduan jardutetik, berak eskatuta.

Bigarrena. Lanpostu uzte horrek 2020ko otsailaren 22tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa duenari, Urkabustaizko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta agintzea ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 26a

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua
IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria
JESUS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA